



BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN AUTOMATIZAZIO-SISTEMAK ADMINISTRATZEKO, EGUNERATZEKO ETA HAIEN ALDAKETAK KUDEATZEKO LAGUNTZA TEKNIKOAK KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUA KARATULA. 3304 ESPEDIENTEA

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☒ BAI ☐ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Zabalik ☐ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza batzordea ☒ Presidente ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Javier Salvador Montaos
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak egiteko telefono-zk.: 94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: Kontratu honen xedea Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren automatizazio-sistemak administratzeko, eguneratzeko eta haien aldaketak kudeatzeko laguntza teknikoa erostea da.

2.- Bete beharreko premiak: Kontuan hartuta hornidura- eta saneamendu-sistemak etengabe aldatzen ari direla eta azken urteetan progresiboki hedatzen ari direla, ulertu beharra dugu aktibo horiek kudeatzen dituzten sistemak bizirik daudela; beraz, hainbat bertsio eta egitura-aldaketa jasaten dituzte. Gehitu behar dugu lizitazioa eta aurreko ingeniari-tza zerbitzu-kontratua inguratzen duen egoera dela eta, aldaketa horiei aurre egin ahal izateko, egungo garapen-plataformak erabiltzen dituzten integrazio- eta automatizazio-zerbitzuen hornitzaile batzuk daude. Beharrezkoa da ekintza horiek gainbegiratzeko urrutiko kontrola duten software programa guztien estiloa, forma eta edukia mantentzeko. 2014. urtetik gainbegiratzeko-lan hori 1831 espedientearen bidez egin da bereizten diren bi loterekin, lehenengoa SCADA Wonderware sistemarako eta bigarrena automata programarietarako. Aurreko kontratuko lotetatik lehenengoa ez zenez luzatu, 2017an 1. lotearen zerbitzuak lizitatu ziren 2200 espedientearen. Bigarren lotearen luzapena amaitu ondoren, orain zerbitzu horien lizitazioa proposatzen da.

3.- Lotetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez

Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa: Zerbitzuaren helburu nagusia denez BBUPko automatizazio-sistemen homogeneotasuna eta estandarizazioa mantentzea, ezinbestekoa da automata guztietan lan-metodologia berdina aplikatzen duen adjudikaziodun bakarra egotea; horrela, irizpide ezberdinak saihestuko dira hainbat enpresen artean. Gainera, ezin denez azpikontrataziorik egin, enpresa adjudikaziodunak bakarrik egingo du zerbitzu hau. Horrek ezinezko egiten du kontratua lan-motaren arabera lotetan zatitzea, kontraesanean jarriko lituzkeelako proiekturako aurreikusita dauden adjudikaziodunaren bakartasunaren printzipioa eta azpikontrataziorik eza.



B.- KONTRATUAREN XEDEA

4.- CPV:

CPV kodea: 71356200-0

Deskribapena: Laguntza teknikoa emateko zerbitzuak

5.- Aldagaiak edo alternatibak onartzea:

☐ BAI

☒ EZ

6.- Izaera juridikoa

☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.-KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)

**BOSTEHUN ETA HAMABI MILA HIRUREHUN
ETA HOGEITA HAMALAU EURO ETA
HIRUROGEITA LAU ZENTIMO (512.334,64 €)**

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: MILIOI BAT HOGEITA LAU MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEITA BEDERATZI EURO ETA HOGEITA ZORTZI ZENTIMO (1.024.669,28 €)

Loteak:

☐ BAI

☒ EZ

3.- Prezioa zehazteko sistema:

☐ Honenbesteko prezioa

☒ Unitatearen prezioak

4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-esleipena:

Hauek dira kontratuaren aurrekontuaren urteko zenbatekoak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa:

2027. urtea – 16931 22707 partida -- 234.820,04 €

2028. urtea – 16931 22707 partida -- 256.167,32 €

2029. urtea – 16931 22707 partida -- 21.347,28 €

5.- Prezioak berrikustea:

☐ BAI

☒ EZ

6.- Kanpoko funtsekin finantzatzea:

☐ BAI

☒ EZ

7.- Ordaintzeko modua: Adjudikaziodunak egindako lanen balorazioa eta ordainketa hileko ziurtagirien bidez egingo da. Lanen aurrerapen-mailari dagozkien unitate osoak ziurtatuko dira. Ez dira ordainduko kontratuaren zuzendariak balioztatu eta onartu ez dituen lanei emandako orduak. Formakuntza-orduak, deialdiaren jatorria edozein dela ere, ez dira zenbatuko hileko ziurtagirietan. BBUPko organo eskudunak izapidetuko eta onetsiko ditu kontratuaren ingeniari zuzendariak emandako ziurtagiriak.

8.- Konturako ordainketak: Ez da aplikatu behar



D.- KONTRATUAREN EPEA

1.- Iraupen osoa: HOGEITA LAU (24) HILABETE

2.- Epe partzialak.

☐ BAI ☒ EZ

3.- Luzapena

☒ BAI ☐ EZ

URTE BATEKO (1) BI (2)

4.- Berme-epea: Ez da behar.

5.- Kontratua betetzeko tokia: BBUParen instalazioak

6.- Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

☒ Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.-KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena: amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokio, eta kontratuaren urteko batez besteko kuota bezainbeste izan beharko da behin gutxienez.

G.-KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzeko, azken hiru urteetan egindako zerbitzu nagusien (kontratuaren xede direnen berberak edo antzekoak) zerrenda aurkeztu beharko da, eta gauzatze handieneko urtean haien zenbateko metatua urteko kontratuaren urteko bestez besteko kopuruaren % 70 edo gehiago izango da.

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen tekniko:

Kaudimen tekniko eta profesionalean eskatzen den esperientzia ez da kontuan hartuko kasu horietan. Bai, ordea, gainerako eskakizunak.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, Hautazkoa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen arabera irizpideen dokumentuak.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentuak.

BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTUAK

Sartuko da:

- a) Egin beharreko lanak deskribatzen dituen memoria, alderdi hauek bereziki azpimarratzeko:
 - a. Preskripzio teknikoaren plegu honetan zerrendatutako lanak behar bezala egiteko jarraitu beharreko metodologia.
 - b. Proposatutako zerbitzua: esleitutako talde teknikoaren osaera, kideen kualifikazioa, dedikazioa eta kontratuaren helburura egokitzeko antolaketa. Talde teknikoko kideen *curriculum vitae* erantsiko da. Kontratuaren gaiarekin lotuta egindako ziurtagirien eta prestakuntza-ikastaroen egiaztagiriak sartu beharko dira. Eskatutako profil bakoitzerako, dedikazio eskusiboko esleitutako profil nagusiak eta ordezkio profil bat adierazi beharko dira.
 - c. Kontratuko langileak prestatzeko plana: adjudikaziodunaren irismena eta konpromisoa
- b) Maketak egiteko kontratuaren esku jarritako materialak. Esleitutako teknikarien eskura dagoen softwarea.

Gehieneko orrialde-kopurua (alde bakarrean idatzita) 30 izango da, ezaugarri hauekin:

- Tamaina: DIN-A4.
- Letra-mota eta gutxieneko tamaina: ARIAL, 10 puntu.
- Gutxieneko lerroarte: 1,5 puntu.
- Gutxieneko goiko eta beheko marjinak: 2,5 cm.
- Gutxieneko ezkerreko eta eskuineko marjinak: 2 cm.

Gehieneko orrialde-kopurua zenbatzen denean, aurkibidea 30 orrialdeen barnean zenbatuko da. Azala eta kontrazala ez dira zenbatuko. Aurreko baldintza betetzen ez bada, balorazio teknikoan zehatuko da.

ESKAINZA BAZTERTZEKO HUTSEGITE TEKNIKOAK

- Baldintza tekniko berezien pleguan edo administrazio-baldintzetan ezarritako baldintzaren bat urratzen duen eskaintza aurkeztea.
- Beharrezko dokumentazio teknikoak ez aurkeztea edo zuzen ez egiaztatzea.
- Proposatutako teknikarien egiaztagiriak eta prestakuntza ez aurkeztea.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatuzaileak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da l. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa izan ezik.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

- a) Prezioen zerrenda.

Concepto	Ud	Precio	Totales
Importe Informa Seguimiento trimestral	8		
Importe hora técnico superior automatización	3512		
Importe hora técnico medio automatización senior	3512		
Importe hora técnico medio automatización junior	3512		
TOTAL			



I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa
2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik Administrazio-klausula partikularren pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):
3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ
Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:
Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Mahaikideak:
Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.
Xabier Orue Moro jauna.
Itziar Zarate Urrutia andrea.
Gerardo Latorre Pedret jauna.
Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:
Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKOAK DIREN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez 50 puntu lor daitezke.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoei (Bi) proportzioan baloratuko dira honela:

Bmax	50 puntu
$(B_{max} + B_M) / 2$	48 puntu
B _M	47 puntu
$0,8 \times B_M$	46 puntu
$0,6 \times B_M$	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Argibideak:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.
- B_M: Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzailerik bakoitzaren baja-ehunekoen batez besteko aritmetikoaren emaitza.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuen banaketa.

Modu horretan, Bi bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honi dagokiona da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BM$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BM < Bi \leq 0,8 \times BM$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BM)}{0,2 \times BM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BM < Bi \leq BM$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BM)}{0,2 \times BM}$$

Baldin eta $BM < Bi \leq (BM + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BM)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

Baldin eta $(BM + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BM - Bmax)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEAK 50 PUNTU

a) Deskribapen-memoria eta gauzatze-metodologia. (30 puntu)

- Kontratuaren alderdi gakoak, zehaztapen-maila eta eskaintzan kontraesanik edo anbiguotasunik ez dagoela identifikatzea.
- Gauzatzeko metodologia. Positiboki baloratuko da metodologia bizkorrak proposatzea lanen kudeaketarako.

b) Kontraturako jarritako bitarteko teknikoak: (20 puntu)

- Bitartekoak eta baliabideak egindako programazioaren bulegoan (maketa).
- Antolamendua eta ekipoak baldintza tekniko berezien pleguko 3. puntuan ezarritakoaren arabera.
- Konpromiso mailak eta lanak egiteko aurreikusitako epeak.

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- a) Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizarteratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.
- b) Enpresako langileen artean aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duena.
- c) Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Ohi baino txikiagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat ohi baino txikiagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzaille bakarra izanik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino 25 ehuneko-puntu txikiagoa denean.
- Bi lizitatzaille izanik, beste eskaintzaren aldean 20 ehuneko-puntu txikiagoa denean.
- Hiru lizitatzaille daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoak direnak. Hala eta guztiz ere, batezbestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batezbestekoa kontuan hartuta 10 ehuneko-puntu baino handiagoa bada, eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokatzen joko da aldea 25 ehuneko-puntu baino handiagoa bada.
- Lau lizitatzaille edo gehiago izanik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoaren aldean % 10 baino txikiagoak direnean. Dena den, horien artean batezbestekoa baino 10 ehuneko-puntu handiagoak diren eskaintzak badaude, batezbesteko bat kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarra izango da ausarkeria-atalase berri bat ezartzea, eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batez besteko berria hiru eskaintza merkeenak erabiliz kalkulatu da.

Talde berekoak diren enpresek eskaintzak aurkeztu dituztenean, ustezko anormaltasuna dakarten eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, txikiena hartuko da kontuan, kontuan hartu gabe eskaintza bakarka aurkeztu duten edo taldearekin zerikusirik ez duen beste enpresa batekin edo batzuekin batera, haiekin aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez egin badute.

4.- Lizitatzailleak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak.

M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

Zehapenak ezarri ahal izango dira ez ekartzeagatik baldintza tekniko berezien pleguko 4. puntuan deskribatutako lan-maketa eta software baliabideak. Eskaintako prezioak % 5 gutxitu ahal izango dira horiek ezarri arte.

Kontratuan eskaintako eta adostutako prestakuntza-plana betetzen ez bada, zehapenak aplikatu ahal izango dira; hala, prestakuntza-mugarrik betetzen ez bada, kontratuaren prezioak % 2 murriztuko dira hurrengo ziurtagirietan, mugarrria bete arte.

Jabeak (BBUP) zehaztuko ditu zehapenak, aurreko baldintzatzailleak kontuan hartuta. Zehapenak kontratuaren guztizkoaren % 10 hartu ahal izango du gehienez, eta BBUPk kontratua deuseztatu ahal izango du % 5 gaindituta.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatik erantzukizun-asegurua baduela egiaztatzen duen ziurtagiria.



Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikatu behar

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

- ☒ Hasierako ekarpenaren betebeharra
☐ Azpikontratazioaren mugak

Automata programagarrien programazioa ezin izango da azpikontratatu, kontratuaren helburu nagusiarekin lotutako zeregin kritikoak baitira; alegia, BBUPko automatizazio-sistemarako laguntza teknikoak da. Zeregin kritikoak dira, automatizazio-sistemek behar bezala funtzionatzen dutela zaindu behar baitute, ekoizpena ezin dela inoiz gelditu ziurtatzeko, eta, beraz, zuzenean kontratistaren mende ez egoteak gorabeherak eragin ditzake, automata programagarriaren programazioaren eta aparkatzeko zerbitzu arautuaren arteko zuzeneko elkarriketa behar baita.

Horregatik, kontrol-sistemak mantentzea funtsezkoa eta kritikoa da obrako lanen garapenean, eta eragin zuzena du sistemen funtzionamenduan; horregatik, lan horiek kontratista nagusiak egin behar ditu zuzenean.

Lizitatzailleek eskaintza teknikoan adierazi beharko dute zein lan azpikontratatu dituzten. Gainera, zerbitzu-prestazioko enpresekin hartutako kontratu-konpromisoak entregatuko dituzte.

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

- ☒ BAI
☐ EZ

KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

- BBUPko Prebentzio Sailaren eskakizunak betetzea.
- BBUPko ingurumen-eskakizunak betetzea Prebentzio-baliabidea edukitzea une oro landa-lana egiteko fasean.
- Lanak zerbitzuaren beharreitotuta egongo dira. Horregatik, BBUPak hala eskatzen duen bakoitzean (nahierara) eten edo atzeratu egin beharko dira. Aurrekoa urratzen bada, kontratua hutsaldu ahal izango da.
- Adjudikaziodunaren akats edo axolagabekeria batek sortutako matxura edo istripu larria kontratua hutsaltzeko kausa izan ahalko da.
- % 5eko edo hortik gorako zehapena aplikatuz gero, kontratua hutsaldu ahal izango da.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Ordezkaria beharrezkoa da. Ordezkaria kontratuaren arduradun teknikoa izan daiteke aldi berean, baldin eta erabakiak hartzeko gaitasun nahikoa badu.